

TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO hitza ^{info}

Asteartea, 2012ko irailaren 18a. IX. urtea. 2.401. zenbakia. tolosaldea.hitza.info



Cristobal Gutierrez Hezitzailea

«Gurasoen gabezien isla da haurren muga eskasia»

Haurren hezkuntza eta hazkuntzan aditua den Gutierrezek hitzaldia emango du Tolosan **02**

Urte eta erdi eta gero Ametsa trinkete berritua zabalik

Irurako gun e berrituaren inaugurazio ekitaldian xare partidak jokatu zituzten **07**



Ainhoa Ugalde alkateak moztu zuen zinta inaugurazio ekitaldian. A. IMAZ

→ **Eginiko ekarpena eskertuz.** Tolosako Ekinbide Etxeak antolatutako I. Eskulturastea bukatzeko Nestor Basterretxea omendu dute. Oroigarri moduan Ekinbide Etxearen lehen lehendakari Antxon Elosegik eskultore berak egindako erreprodukzioa eman zion –irudian–. Bermeotarrak «Tolosari distira dario» esan zuen esker onez. **05**

Ibarrako Mendi Duatloia Jon Erguin beasaindarrak irabazi du

Euskal Herriko Mendi Duatloi Zirkuituko lehen proban 143 kirolarik hartu zuten parte; Unai Yus izan zen bigarrena **06**

Zestoako Akuako Bira irabazi du Zizurkilgo Nerea Amilibiak

Korrikalariak 36 minutu eta 7 segundo behar izan zituen 7.800 metroko ibilbide gorabeheratsua bukatu ahal izateko **06**

Tolosako giza katean preso gaixo larrien egoera gogoan izan dute

Bizi osorako kartzela zigorraren amaiera eskatu dute, eta Pello Odriozola tolosarraren askatasuna aldarrikatu dute **03**



Ingelesa 1go urtetik Metodo propio eta desberdina Talde txikiak Zatoz Kids&Us ezagutzera!!
Kids&Us Tolosa-Iurre Auzoa, N°17-18 Buzo 20400 Tolosa T. 679 360 711
tolosa@kidsandus.net <http://tolosa.kidsandus.es>
www.kidsandus.es

Cristobal Gutierrez ◦ Hezitzailea

1995. urtean irakaskuntza askeko Kataluniako lehen bi eskolak sortu eta zuzendu zituen Gutierrezek. Eskarmentu handiko profesionala da, eta Tolosan hitzaldia eskainiko du, gaur.

«Haurrekiko mugak osasuntsuak eta beharrezkoak dira»

Janire Jaio

Haurrak zainduz, helduak hazi hitzaldia eskainiko du Cristobal Gutierrezek, gaur, 18:00etan, Tolosako kultur etxean, Altzoan taldeak antolatuta. Haurren eta orokorren, familien zaintzaz arduratzen da, eta horretarako ikastaro eta hitzaldi ugari ematen ditu, Haurraren Arimaren Zainketaren, gaztelaniazko CAIren, inguruko proiektu sortzaileak lagunduz.

Azkenaldian haurren hezkuntzaren inguruko galderek mugen gaia dute oinarri. Zer dio Haurraren Arimaren Zainketak (CAI) mugen gaiaren inguruan?

Gure haurrekiko mugak, gomen-dagarriak izateaz gain, osasuntsuak eta beharrezkoak dira beraien hazkuntzarako. Alabaina, helduak muga hauekiko hainbat zehaztasun ahazten ditugu: gure haurrari muga bat jartzeko arrazioa ez luke behar aspertu eta nekatu egiten gaituela. Mugaren arrazioa haurrak bere adimena garatzea da, inguruarekin harremanetzeko duen gaitasuna ahalbidetzea eta bere onena ateratzea. Mugek batu egin beharko lukete eta ez banandu.

Mugak jartzeko alderdi asko hartu behar dira kontuan, hortaz.

Muga bat jartzeko ez da nahikoa aurrera egiteko jarraibide batzuk izatea, gauza gehiago hartu behar dira kontuan: muga unerik aproposenean jarri behar da eta indar egokiarekin. Hau guztia, noski, ezinbesteko maitasunaren

eskutik, maitasunik gabe esaldirik hoberena hutsa baita. Haurrek gurasoen onena eta okerre-na islatzen dute, horregatik lehen pausua da beraien sintomak gu heldu moduan hobetzeko aukera gisa hartzea.

Haurrak gero eta gutxiago kontrolatzen direla esan ohi da, helduak geroz eta galdugoa daudela da arrazioa?

Behar bada, Guri, helduoi, begiratu besterik ez dago mugen gaiarekin argitzen ez garela ulertzeko: neurria izan nahi dugu eta larregi eta gaizki hitz egiten dugu, bikotekidearekin eztabaidatu eta min egiten diogu, gehiegikeriak egiten ditugu oraindik... Oro har, muga eskasia arazo da eta gudan, besteengan eta elikatzen gaituen planetarengan mina eragiten dute. Ez dakigu gure pentsamenduei, ikusezinei, haserrealdiei, ezta beldurrei ere, mugarik jartzen, eta horregatik ematen ditugu gauak lorik egin gabe, esaterako norbaitek esan digunaren ondorioz arduratuta, gure buruari min egin arte. Mugen kontu honetan helduoi hobetzea falta zaigu, argi dago. Gure haurrak hobetze horretarako aukera bat dira, beraien muga eskasiak gure gabeziak eta nahasketak islatzen ditu eta.

Gurasoek askotan zer egin behar duten jakin nahi dute, erantzun erraz bat jaso nahi dute, zer esango zenietke?

Erantzun errazak ongi hartu ohi dira, baina elbarritu egiten dute askotan. Adibide bat jarriko dut:

futbol entrenatzaile baten jardura egin daitekeena eta egin ezin daitekeena esatea da bakarrik? Argi dago ezetz. Jokalariak zaindu beharko lituzke, batez ere, ezusteko uneetan jokaldi egokienak ikusi eta sortu ahal izateko, beraien gaitasunetan konfiantza izan dezaten... Jokalariei entrenatzerakoan mugak jarri behar zaizkie, baina badira ezinbestekoak diren beste hainbat faktore ere. Une bakoitzean behar den jarrera ez duen entrenatzaile batek ezin du bere lana ondo egin. Beharrezko nahitasuna erakusten ez duen entrenatzaileak ezin du bere jokalarietatik onena atera.

Eta jendarteak baloratzen al du hau guztia?

Behar bada ez, baina horri irtenbidea eman al zaio. Aitaren, amaren edo zaintzailearen papera ongi betetzeko ez da nahikoa uneko petatxuak jartzea, zerbait gehiago egin behar da ideologia eta teoretatik at. Guraso edo zaintzaileari haur horien bihotzeta hartzeara heldzea dagokie; haurrak zaindu egin behar dira mundu konplexu honetan ekiten eta mol-

«Mugek haurrak bere adimena garatzeko eta onena emateko balio dute»

«Haurren muga eskasiak gurasoen gabezi eta nahasketak islatzen ditu»

«Gure seme-alaben haurtzaroa etorkizuneko oinarria da»

datzen jakin dezaten, eta hori norberaren beldurrak, haserreak, ezinikusiak, ondoezak... ulertzeko jarrera edukita egin daiteke, hori guztia gainean darabagun zama baita, egoera askotan, maitasunez, aurrera egiten uzten ez diguna. Haurren zaintzan mugen gaiak zati txiki bat baino ez du hartzen, garrantzitsua bai, baina zati bat baino ez. Bizitzan



HITZA

sakontzen saiatuz gero haurren bihurrikeriei konponbidea emateaz gain, pertsona bakoitza berriztatu egingo da, gainetik pisu handia eta estutasunak kenduko ditu eta hainbesteko samintasunez gogoratutako alaitasuna berreskuratuko du.

Adibide praktiko bat jarriko dugu, zer egin behar da otorduetan zertobait jan eta jolasten ari den haurrekin? Janaria eman behar al zaio edota jolas egiten utzi?

Lehenik eta behin, haur txiki horren jolasteko desioa une horretan duen benetako beharra den ala ez ikusi behar dugu. Horrela bada, jolasten utzi beharko genioke, jolastea sarri, askoz osasuntsuagoa baita haurrentzat jatea bera baino. Alderantziz, geldi egon ezinik, urduri dagoelako jolasten hasten bada, atentzioa bereganatu nahian adibidez, orduan, besoetan hartu eta gauza maitagarriak esatea komeni da. Eskatzen ari den arreta hori ematen lasaitu eta jaten hasiko da segituan.

Askotan gurasoek ez dute horretan guztian pentsatzeko astirik ordea...

Gurasoek ulertu behar dute haurrek maitasun asko behar dutela eta haurren egonezinenaren sus-traia zein den aztertu behar dutela, bestela, oinarria zein den jakin gabe adabakiak jartzen hasten

badira, egoera okerragotu beste-rik ez dute egingo. Beste adibide bat jarriko dut. Behin bide ingeniaria den lagun batengana joan nintzen autopista bateko zubi bat eraikitzen ari zirela. Betoiak jasan behar zuen prozesuaren garrantziaz hitz egin zidan, presarik gabe egin beharra zegoela eta bukatu eta segituan pisua gainera botata zubiak behera egingo lukeela esan zidan. Ez da lehen aldia izango zubi erorketek hainbat heriotza eta sufrimendu eragiten dituztela eta hori prozesuaren denbora bere osotasunean errespetatu izan ez delako izaten da.

Oinarri sendoa behar dute haurrek, alegia.

Gure seme-alaben haurtzaroa etorkizuneko oinarria da eta horregatik da oso garrantzitsua haurrek oinarri hori bere egiteko denbora izatea, horiek dira eta, heldu egiten direnean bizitza sostengatuko dutenak. Haurra horrela zainduz gero nagusia egiten denean entzuten jakingo du, presioak eramangarri egingo ditu, ez da guztiaz kexatuko eta irtenbide bat ikusiko du, ez dagoela irudizten zaigunean ere. Eta haurra modu honetan zaintzearen gauzarik hoberena da osotasunean bizitzen ikasiko dugula eta jakintsuagoa izango garela.

◉ tolosaldean@hitza.info

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA



Bizi osorako kartzela zigorraren amaiera eskatu zuten Tolosan larunbatean, giza kate batekin. E. MAIZ

Bizi osorako kartzela zigorra salatu eta Odriozolaren askatasuna eskatu dute

Zizurkilen Bigarren eskuko elkartasun azoka antolatu nahi du Herrirak, herritarren laguntzarekin

Asier Imaz

Tolosaldeko Herrira mugimenduan giza katea egin zuen iragan larunbatean, bizi osorako kartzela zigorraren amaiera eskatuz. Herriratik azaldu zuten, Pello Odriozola preso tolosarrari doktrina hori jarri diote, eta kalean egon beharko lukeen arren, Zuerako espetxean daukate preso: «Estrasburgoko giza eskubideen tribunalak Ines del Rio presoaren kasuan argitaratutako ebazpenaren arabera, euskal presoek bizi osorako zigorra aplikatzeko 197/2006 doktrina, ez legezkoa eta eskubide urratzailea da».

Larunbatean aldarrikapen honen Estraburgora joan ziren hainbat euskal herritar. Ekimen honi babesa eman asmoz, Herrirak egoera horretan dauden 67 presoek herrietan, elkarretaratzeko antolatuta zituen. Tolosan 130 lagun inguru elkartu ziren Pello Odriozolaren askatasuna eskatzeko, eta bizi duen egoera «ez legezkoa» salatzeke.

Giza katea Trianguloa plazatik irten zen eguerdian. Zerkausia zeharkatu ostean, Alde Zaharreko plazak gurutzatu zituen. Bide

guztian zehar, giza kateko partaideak herritarrei esku orriak bantzen ibili ziren, euren aldarrikapenak azalduz.

Mobilizazioaren amaieran, bizi osorako kartzela zigorraren zeharkako ondorioak ere salatu zituen Herrirak: «Askatasuna galarazteaz gain, atzera bueltarik ez duten kalte fisiko, psikiko eta moralak dakartzan neurria da».

Bizi osorako kartzela zigorra «ez legezkoa eta eskubide urratzailea da»

Giza katean gaixo larrien egoera gogoan izan dute, aulki huts bat eraman dutelarik

197/2006 doktrinaren amaiera eskatzearekin batera, gaixo larriak gogoan izan zituzten Tolosaldeko giza katean. Hori irudikatzeke, aulki huts bat eraman zuten mobilizazioan: «Gaixotasun larriak dituzten presoek askatasuna ukatzea edota dispersio politika, presoen eta beren inguruko pertsonen eskubide galera da, eta sufrimendua dakartzaten neurriak dira».

Bigarren eskuko azoka

Zizurkilen Bigarren eskuko elkartasun azoka egingo dute urriaren 5etik 7ra bitartean, In-

txaur pilotalekuan. Herrirak antolatuko du azoka, eta eskualdeko herritar guztiei etxean soberan dituzten liburu, arropa, jostailu, altzari eta abar azokara eramateko eskatu die. Trasteak Iriarte Kultur Etxean utzi behar dira, hilaren 21ean edo 28an, 19:00etatik 21:00etara. Ganbarak hustuz, elkartasuna zabalteko deia egin dute.

Azoka urriaren lehen asteburuan egingo dute Zizurkil goiko frontoian, baina hor ez da amaituko Herriraren ekimena, izan ere, ondorengo astean artelan eskularen erakusketa jarriko dute Iriarte kultur etxean. Bertan jartzen diren artelanak erosteko aukera egongo dela azaldu dute Herriratik.

Azkenik, bai bigarren eskuko azokan eta baita erakusketan parte hartzeko mezua zabaldu dute.

Prentsa agerraldia, etzi

Tolosaldeko euskal preso eta iheslarien inguruan eman diren mugimenduen berri emateko, prentsaurrekoa antolatu dute irailaren 19an, etzi. Villabonako zine aretoan elkartuko dira 19:30ean, eta azken hilabeteetako albisteak plazaratuko dituzte berri-tan.

Prentsaurrekoan herritarren babesa nahi dute, horregatik, eskualdeko herritar guztiei Villabonara agertzeko deialdia luzatu diete.

→ Laburrak

Haur eta gaztetzoen danborradaren eskertza

IBARRA › Haur eta gaztetzoen danborradako batzordeak, jaietan parte hartu duten neska mutil guztiak zoriondu nahi izan ditu: «Kanoilariak, zuzendariak, danborrak, barrilak, danbor txikiak eta baita irakasle eta kanti-nerak ere». Izugarri ondo jo zutela esan dute batzordetik, eta euren portaera ezin hobea izan zela. Danon Txokoa, Amaia Lasa Muñagorri, Felix Urrestarazu, Sendi Ekintza taberna eta danborradan lagundu zuten guztiak ere eskerrak eman dizkie. Hurrengo urterako, aldi, trafikoa arazoak hobetzen saiatuko direla azaldu dute.

Antonio Sorarraini buruzko liburua, udaletxean

ALKIZA › Pello Joxe Aranburu alkizarrek argitaratu berri duen liburua, *Antonio Sorarrain Amunarriz, 1928-2011, biografia eta obra*, Alkizako udaletxean dago salgai. Idazleak azaldu duenez, Lazkaoko Gerriko liburu denda ere jarri dute salgai.

Hiru lagun zigortu dituzte erregaia lapurtzeagatik

IRURA › Epaitegiek hiru lagun zigortu dituzte Irurako Ibaiondo auzoan, 2010ean, kamioiei erregaia lapurtzeagatik. 60 litro erregaia atera ostean, Ertzaizak harrapatu zituen hiru lagunak. Epaia ostean, bik 1.980 euroko isuna ordaindu beharko dute, eta hirugarrenak 1.620 eurokoa.

Anoetako aisialdi eskaintza, Basagaindik hasita

Haur parkeari buruzko bilera antolatu du udalak, herritarren proposamenak biltzeko helburuarekin

A. Imaz Anoeta

Anoetako Udalak hainbat kirol eta kultur eskaintza antolatu ditu ikasturte berrirako. Herriko historia ez dute atzean utzi nahi izan, eta horren harira, Basagaingo burdin aroko herrikkara bisita gidatuak egingo dituzte, hilaren 19tik 27ra, 26an izan ezik. Udaltik azaldu dutenez, urtero bezala, Aranzadi Zientzia Elkarteak indusketa lanak egingo ditu bertan, iraileko bigarren hamabostaldian. Xabier Peñalverren gidaritzapean. Hau kontuan hartuta, bisita gidatuak egiteko «aukera paregabea» ikusi dute, adituen azalpenak bertatik bertara entzunaz. Interesa duten guztiak, udalxera deitu beharko dute, bisita eguna eta ordua adosteko. Telefono zenbakia ondorengoa da: 943 65 12 00 (Tere).

Xake Txokoari dagokionez, udalak berriro martxan jarriko du urritik aurrera. Ikasturte osoko matrikula 20 eurokoa da, eta izena emateko epea hilaren 21ean amaituko da, udaletxean edo liburutegian. Ikasle berrientzat lehen bi asteak, probakoak, dohainik izango dira. Xake Txokoa LH1 eta LH6 bitarteko ikasleentzat antolatuta dute, eta ostiralero elkartuko dira Hozpel Kaleko udal lokalean.

Erabat ludikoa denez, ez da derrigorrezkoa izango ostiralero txokora azaltzea.

Haur parkeari buruzko bilera ere antolatu dute, irailaren 20an, 18:00etan udaletxean. Anoetako Udalak udal parkea konpondu nahi du, eta ezer egin aurretik, parkeko erabiltzaileen iritzia eta proposamenak ezagutu nahi ditu. Helburu horrekin antolatu dute ostegunean bilera.

Dantza eskolari dagokionez, ikasturte berrian izena emateko epea hilaren 21ean amaituko da, udaletxean eta liburutegian. Txiki-kieneen matrikula 65 eurokoa da; 8tik 13 urtera bitartekoena 70 eurokoa eta gazte eta helduena 95 eurokoa. Ekainean apuntatu zirenek ez dute berriz izenik eman beharko. Klaseak urriaren 3an hasiko dira auditorioan, eta hilabete hori proba gisa erabiliko dute. Lide Zubeldia, Ane Ürkola, Ane Jauregi eta Amañur Luluaga izango dira irakasleak.

2012ko USATEGIEN ENKANTEA BIRIGARRO ETA USOA ARESO(NAFARROA)


TEL 948-510 327-608-928 626

Donostiatik 20 minututara Paradetaraino sardieba kotxez

Enkantea Udalteko Batzar Aretoan burutuko da.

1go enkantea: irailaren 22an, larunbata, 19:00 ordutan
2. enkantea: irailaren 29an, larunbata, 19:00 ordutan

Ibarra



ERRETIRODUNAK JAIIETAN

Ibarrako Bidi-Nahi erretirodunen eta pentisiodunen elkartearen jaiak ospatu dituzte ostegunetik igandera. Hain zuzen ere, hererengungo bazkaria izan zen ekitaldi nagusia. Bertan, opariak banatu zituzteten bazkideei eta dantzaldia egin zuten. Aste osoan zehar, karta jokoa, bingo —irudian— edota toka izan dituzte. [»](#)

Ibarra



GIRO «BIKAINA» EH EGUNEAN

Algorita, Ibarra eta Lizarrako 200 lagun inguru elkartzu ziren larunbatuan, Algorita, Bai Euskal Herriarik antolatutako Euskal Herria Egunean. Ibaratik 40 herritar inguru joan ziren hirur herrien arteko sendetze festan parte hartuz, eta «giro oso ona» izan zela nabarmendu dute. Jokoa, bazkaria eta poteoa izan zituzten, eta festa goizaldera arte luzatu zen. [»](#)

Bertako informazioari bertako produktuari

Egin HITZAREN herriak duen indarra jaso unean zure eta jaso bertan gurte, lekuzabal jeneratzaileekin, **OPARI**

hitza

Tolosa



BONBEREAN SUTAN, ARAKASTATSUA

Hinagarenez antolatuta dute Bonberenea Sutan Jalaldia. Aurtengoa, Glaukoma, Matxura, Berri Txarrak, G.A.S. Drummers eta Gose taldeak «gustura» daude, «guztia oso ondo joan baita», eta eskerrak eman diezkie, herri-tarrei eta parte hartu duten taldeei. [»](#)

Alegia



KALEBEHERAKO FESTAK IGARO DIRA

Alegian, Kalebeherako jaiak ospatu dituzte asteburuan. Larunbatuan bertsoa izan zen protagonista, bertso potea eta bertso saioaekin. Gazte-foke ere ederreki igaro zuten jokoetan jolastan —irudian— eta kirolak ere tartea izan zuen, krosak eta palak, hain zuzen. Igaroan, berri, denetarik izan zuten alegiarrek: dantza, txakolina, bazkaria, pilota, zahagiardoa eta mus txapelketa. [»](#)

Amasa



GIRO POLITA II. TXAKOLIN EGUNEAN

Amasako Uxo Toki elkarteak antolatuta, II. Txakolin Eguna ospatu zuten larunbatuan Amasan. Pasa den urtean baino jende gehiago erakari du aurtengo festak, eta «gustura» daude antolatzaileak. Mikel Goñi protagonistan izan zen pilota partidak ikusmen handia sortu zuen, eta jendetza bida zen pilotalekuan, eta baita ondoren ere plaza. 22 txakolin dastatzean. [»](#)



El Intamabul orkestrak lanurabateko ekitaldieran une batean. [»](#)



Mandala eraldioa egin zuten ostegunetan. Eskulpean, bai Vierde Tolosako alkatea, Nestor Basterretxea eta Anton Elosegi; Tolosako Ekinbide Etxeko lehendakaria. [»](#)



Omenaldi hunkigarria Basterretxeari

Iñigo Terradillos Tolosa

Nestor Basterretxea omenaldi zuten larunbatuan. «Tolosako ondore artikulatuen garapenean eskaia duen laguntzarengatik». Omenaldi Tolosako Ekinbide Etxeak antolatu duen I. Eskulturasaren itxiera ekitaldian egin zioten.

Bermeotarra sarjista handia izatez gain, apolitasun eta ontasun handiko pertsona dela nabarmendu dute Tolosako Ekinbide Etxetik. 1967. urtean egin zuen Basterretxeak TE Etxeantatik lehendakaria izan. Orduetik Tolosan egin dituen lanen artean daude,

Idiakez jauregiaren zaharberritzea, Europako Abesbatzen Sari Nagusiako-egindako eskulturak eta Euskal eskulturasen erakusketak iraunkorrenak egindako *Golden* lana. Bada, TE Etxe eskerrak eman zituzten Basterretxeari «Tolosari egindako ekarpenagatik eta herriak modu horretan harrapantzen utzagatik».

Oroigarri moduan, Tolosako Ekinbide Etxearen lehen lehendakari izandako Anton Elosegik Basterretxea beraren erregioziorio den txostongiloa oparitu zion bere aspiak lagunaren artean. Hunkiduraz eta eskerrak emanen hartu zituen Nestor Basterretxeak bere omeneko hitzak eta oroigarriak. «Tolosa got maila hiria da kulturari dagokionez, distira da eta ahal duan guztian parte hartzea, eta denekin diduzuen gurtietan etorriko naiz». I. Eskulturasari dagokionez, «erabat» asmatu dutela ekinenarekin adierazi zuen. «Tolosa lehenia izan da herriko zerbait antolatzen, eta ziur nago herri gehiago etorriko direla atzetik».

«Espainiako Kanpo Ekintza Kulturaleko zuzendari izandako Txaro Utegi epaimahakide izan da Eskulturasaren, eta gisa honetako ekimenak sortzea «poteoa eta benetan saritzea» dela esan zuen. TE Etxe lan goraitzat.

Taula gainetik sarria eskuratu duten gurtiak pasa ziren, hau da, auzoetara jaso duten Jon Oramendi (*Bizkizko* lanarengatik) eta Miren Arzenana (*Loe* lanarengatik); hirugarren sarria jaso duen Elena Artakoa (*Herrikumea* lanarengatik); bigarren sarria jaso duen Daniel Mera (*Ura* lanarengatik); eta irabazlea, Manu Uranga (*Estrolo* orkestra lanarengatik). Artista gurtiek esker hitzak izan zituzten, eta esperientzia oso ona eta aberasgarria izan dela adierazi zuten. Bestalde, aurrera begira ekimenak jarraitpena izatea espero dutela nabarmendu zuten gurtiek.

Itxi berriz Tolosan herri leizaldeko jantxo guztion eskural!

Herri Tolosa herri leizaldeko jantxo guztion eskural!

Herri Tolosa herri leizaldeko jantxo guztion eskural!

Herri Tolosa herri leizaldeko jantxo guztion eskural!

Jon Erguinek irabazi du berriro Ibarako Mendi Duatloi proba

Bigarrena Unai Yus izan da eta hirugarrena, Luis Mari Urizar billabonatarra; parte hartze handia izan da

Imanol Garcia Landa Ibarra

Euskal Herriko Mendi Duatloi Zirkuitua hasi zen asteburuan jokatu zen Ibarako Mendi Duatloiarekin. Bigarren aldiz antolatu dute, eta iaz bezala Jon Erguin beasaindarrak irabazi du proba. Bigarren Unai Yus gasteiztarra izan da, eta hirugarren, Luis Mari Urizar billabonatarra. Lehen ibartarra, iaz bezala, Luis Lasa izan da, 22. postuan. Antolatzaileak «oso gustura» daude probak emandakoarekin: «Lehenbizi, inork ez du minik hartu eta horregatik pozik gaude. Bestalde, oso gustura gaude lehen bi sailkatuek eman duten kirol ikuskizunagatik».

Parte hartzea handitu egin dela eta, gustura daude antolatzailerak: «Iaz 125 kirolarik parte hartu zuten eta aurten 143 izan dira. Gainera, herriko kirolari gehiagok parte hartu dute aurten». Haurrekin egindako festaren inguruan ere balantze «oso ona» egin dute: «Parte hartze handia izan da eta oso gustura aritu dira haurrak eta gurasoak».

Emakumeen parte hartzea zabalagoa izatea nahiko lukete antolatzailerak. Izan ere, bi emakumek hartu dute parte, eta batek lortu da amaitzea, Amaia Luquin errenteriarra.

Luis Mari Urizar gustura azaldu da hirugarren postuarekin. Iaz bigarrena egin zuen, baina lesio bat dela medio, ezin izan du korri-



Unai Yus eta Jon Erguin, probako lehen zatiaren amaieran. I.TERRADILLOS

kan aritu hainbat hilabetez: «Korrika egin gabe denbora askoan izan naiz, eta hori nabaritu egiten da. Lehen zatia 12. edo 13. amaitu nuen eta gero bizikletan hirugarren postura igo nintzen eta bukatu arte mantendu ahal izan nuen». Aurrera begira, mendi duatloiko zirkuituaren beste probetan parte hartzen saiatuko da.

Bere aldetik, Luis Lasa gustura aritu zen herriko proban: «Maila handia zegoen, eta niretzat oso proba esplosiboa da, nik, batez ere, ultratriletan parte hartzen baitut. Baina mendia eta kirola gustatzen zait, eta jende asko zegoen proba ikusten, beraz gustura aritu nintzen».



Zenbait parte hartzaile, bizikletarekin. I.TERRADILLOS

Su Berri 1 taldeak irabazi dio Su Berri 2ri lehenengo partida

I. Garcia Landa

Elkarteen arteko Gipuzkoako ezker hormako txapelketan, emakumezkoen gomazko paletan, Su Berri 1 taldeko Mainer Mendizabalek eta Nati Evaristik 30-23 irabazi zieten Su Berri 2 taldeko Nagore Arozenari eta Ainhoa Garmendiari. Anoetan jokotu zuten partida, txapelketako lehen.

San Mateo torneoa

Oinatz Bengoetxea leitzarrak lehenengo puntua eskuratu du, Beginorekin batera, Logroñoko San Mateo tornean. 22-15 irabazi diete Gonzalez eta Zubietari. Gaur Abel Barriola leitzarrak jokatu du, Xalarekin batera, Olaiola II.a eta Apraizen aurka.

Aurrera Saiaz, Euskadikoan

Hainbat partida jokatu dituzte Aurrera-Saiaz elkartekoek Euskadiko Txapelketan. Kadetetan, 1. mailan, Aurrera Saiaz 1ek 22-11 irabazi zion Aurrera-Saiaz 2ri. Jubeniletan, 1. mailan, Aurrera Saiaz 1ek 22-14 irabazi zion Aurrera Saiaz 2ri, eta Aurrera Saiaz 3k 22-11 irabazi zion Intzari; 2. mailan, 22-15 gailendu zen Aurrera Saiaz 1 Añorgaren aurka eta Aurrera Saiaz 2k 22-10 galdu zuen Hondarrabirekin. Seniorretan, 3. mailan, Aurrera Saiaz 2k 22-8 irabazi zuen eta Aurrera Saiaz 3k 22-8; 2. mailan, Aurrera Saiaz 1ek 22-7 irabazi zuen eta Aurrera Saiaz 2k 22-8 galdu zuen; 1. mailan, Aurrera Saiaz 1ek 22-8 galdu zuen, eta baita Aurrera Saiaz 2k ere, 22-16; ohorezkotan, Aurrera Saiaz 1ek 22-2 irabazi zuen eta Aurrera Saiaz 2k 15-22 galdu zuen.

VII. Akuako Bira irabazi du Nerea Amilibiak

150 parte hartzaile izan dira Zestoan jokaturako proban; korrikalariek 7,8 kilometroko ibilbide aldatatsua bete dute

Erredakzioa Zizurkil

Nerea Amilibia zizurkildarra izan da Zestoako Akua auzoan egindako VII. Akuako Biraren irabazlea, emakumezkoetan. Euraldi eguzkitsua lagun, 150 lagun bildu ziren herenegun Zestoan. Korrikalariek 7.800 metroko ibil-

bide gorabeheratsuari egin behar izan zieten aurre, Akuako ermitatik hasi eta bailara osoa zeharkatuz, auzoko baserri guztietatik pasata.

Amilibiak 36 minutu eta 7 segundo behar izan zuen proba osatzeko; Uxoia Irigoien getariarra izan zen bigarren eta Sonia Alvarez zumaiarra hirugarren. Gizonezkoetan Igon Manzisidorrek 29 minutu eta 48 segundotan jarri zuen marka, eta haren atzetik Jokin Redondo eta Enekoitz Aizpuru helmugaratu ziren. Sailkapenerako lehen bostek bailarako produktuak jaso zituzten sari gisa.



Nerea Amilibia, VII. Akuako Bira proban. BITTOR MUTIOZABAL

Irudia Leitza



PLAZAOLA KIROLARIZ BETEA

Plazaola Natur Bideko IX. Mendi Bizikleta Martxan 455 kirolarik parte hartu dute, horietatik 75 haurrak –irudian–. Bestalde, VI. Maratoi Erdian 175 korrikalarik parte hartu zuten eta Jaouad Boualame eta Arantxa Perez izan ziren irabazleak. HITZA

Ametsa trinkete berritua bete egin da inaugurazio ekitaldian

Aldaketa nabarmenena atzealdean dago, bertan jarri den kristalerarekin; oraindik obren azken fasea falta da

Imanol Garcia Landa Irura

Irurako Ametsa trinkete berritua jendez lepo bete zen eraberritze lanak egin ondorengo inaugurazio ekitaldian. Zinta mozketan, Ainhoa Ugalde, Irurako alkatearekin batera, Gipuzkoako Pilota Federazioko lehendakari Patxi Jauregi, Gipuzkoako Foru Aldundiko Kirol zuzendari Asier Sarriegi, eta Irurako alkate ohi Marimi Ugalde izan ziren. Ondoren Mendiluzek bi bertso abestu zituen, eta xarearen eta Iruraren

arteko lotura erakusteko bideo emanaldia eskaini zuten. Azkenik, maila handiko xare partida ikusteko aukera izan zen, tartean Joxi Lopetegi irurarra zela.

Urte eta erdi itxita izan da Ametsa trinketea obregatik. Aldaketa nabarmenena trinketearen atzealdean dago, bertan jarri den kristalerarekin. Horrela, atzeko gradetatik eta batez ere goiko taboratik partidak ikusteko aukera eskainiko du trinketeak hemendik aurrera. Gainera aldage-la berriak izango ditu kirol instalazioak.

Oraindik azken fase bat falta da Ametsa trinketearen proiektua guztiz amaituta egon dadin. Hau amaitzean, gimnasioa goiko partean egokituko da eta beste lau gela gehituko dira biltegi eta bulego gisa erabiltzeko.



Goian, dantzarien saioa inaugurazio ekitaldian; behean, trinketea beteta xareari buruzko bideoa ikusten. A. IMAZ

Laskorainek Hirugarren mailan ekingo dio sasoiari, larunbatean

Ordezkaritza lanak egin dituen Aitor Garcia izango da denboraldi honetarako entrenatzailea

Gorka Amatrain Tolosa

Bigarren B mailan iaz izandako urte gogorrean jaitziera postuetan amaitu eta gero, aurtengo denboraldian betiko Nazional B izandako Hirugarren maila berriari jokatu du Laskorainek

bere toki naturalera behin itzultita, larunbatean jokatu duen partidarekin. Azken bi urteetan egindako Javiren lan bikainari, joan den denboraldian ordezkaritza lanetan izandako Aitor Garcia entrenatzaile berriak emango dio jarraipena, erronka polita izango du aurretik kalitatez beteriko argazkia baitu bere eskuetan.

Loitzun eta Xabi Diezen bajak gertatu dira udan eta lehen talde-za zuzenean etorritako jokalaririk egon ez arren, harrobiak emango dio beste behingoz Laskoraini bere fruitua. Bigarren tal-

deko 5 jokalarik bete dute aurre-denboraldia gainontzekoekin eta sailkapeneko postu gorenetan borrokatzeko potentziala dagoenaren sinesmen osoa dago klubean.

Ligaren hasiera datorren larunbatean, hilak 22, izango du Laskorainek Aurrera Vitoria CDren aurka, Usabalen.

Eskualdeko lau talde batera Hirugarren mailan eskualdeko beste hiru taldek parte hartuko dute: Egintza Transportes Larkunza talde billabonatarra, Ibarra FS eta Tolosala.

Joxe Gabirondo ondo aritu da nazioarteko sega txapelketan

Segalari gazteluarrak laugarren postua lortu du sega txikiarekin eta handiarekin; taldeka irabazi egin du

I. Garcia Landa Gaztelu

Joxe Gabirondo gazteluarrak maila ona erakutsi du Alemanian jokatutako nazioarteko sega txapelketan. Nazioarteko eran aritu

dira eta gazteluarrak laugarren postua lortu du bai sega txikiarekin eta baita sega handiarekin ere. Garaipena taldeka lortu zuen, Esnaolarekin eta Mitxelena-rekin batera.

Alemanian jokatu da txapelketa, eta Euskal Herriaz gain, Alemania, Suitza, Eslovenia eta Frantzia izan dira lehian. Euskal segalariak orokorrean oso maila ona erakutsi zuten. Esaterako, Igor Esnaolak sega txikiarekin garaipena eskuratu zuen.

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarrita
Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

HITZA Gipuzkoako bigarren egunkari irakurriena



Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.M.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Rebeka Calvo
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@hitza.info
Webgunea: tolosaldean.hitza.info

Zuzendariordea: Imanol Garcia Landa. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitate: 661 678 818 tolosa@bidera.eu
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@hitza.info
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@hitza.info
Anoeta: 687 410 022. anoeta@hitza.info
Ibarralde: 687 410 118. ibarralde@hitza.info
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@hitza.info
Leitza: 687 410 118. leitza@hitza.info

Tolosa Herria
Hedabideak
SM-ko kideak:

BERTAKO
HEDABIDEAK



Galtzaundi
euskara
taldea



eta Tolosaldeko
eta Leitzaaldeko
beste 77 eragile

Hitza-k
Bai
Euskarari



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Altzo, Ametzeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidegoian, Elduain, Hernialde, Ibarra, Irura, Larraul, Leitza, Lizartza, Orendain, Tolosa, Villabona eta Zizurkil

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902820201**

XVI. Argazki Lehiaketa



IHINTZAK MARRAZTUTAKO AMARAUNAK

Gaurko bi argazkiek amaraunak harrapatu dituzte. Lehena, Kike Rodriguezek bidalia da, eta udako goiz batean Altzoko parkean ateratakoa da. Bigarrena, Leitzaatik iritsi da eta Miel Mari Elosegik bidali du lehiaketara. Argazkia, Balerdin atera

zuen, Azkaraten, hain zuzen ere. Goizeko ihintzak bustitako amarauna ageri da. Lehiaketan parte hartzeko argazkiak thargazkiak@hitza.info helbidera bidali behar dira, eta azken eguna urriaren 2a, asteartea, izango da. K.R.-M.M.E.

Agenda

DEIALDIAK

- **Tolosa.** Haurrak zainduz helduak hazi hitzaldia izango da, gaur, 18:00etan, kultur etxean. Cristobal Gutierrez izango da hizlaria, eta Altxoan elkarrekin antolatu du.
- **Amezket.** Herritar guztiak odola emateko aukera izango dute, gaur, 18:30etik 20:30era, kultur etxeko aretoan.
- **Amezket.** Hilaren 30ean, igandean, izango den Xaltonen omenez bazkarirako txartelak ohiko tabernetan jarri dituzte salgai. Erosteko azken eguna, hilak 24, astelehena, izango da.

ERAKUSKETAK

- **Ibarra.** Marce Tenak zuzenduriko *Marrazketa, pintura eta adierazpen artistikoa* erakusketatik ikusgai dago, kultur etxean. 6 eta 10 urte arteko haurren lanekin osatutakoa da. 11:00etatik 13:00etara eta 16:00etatik 20:00etara egongo da zabalik.
- **Tolosa.** Tolosako Udaleko egutegiko argazki lehiaketako 40 argazki finalistak, Aranburu jauregian daude. Tolargi eta Tolosagasa antolatzen dute, eta 'Argiak eta itzalak' izan da aurtengorako gaia. Erakusketatik gaurtik ostiralera, 17:00etatik 20:00etara egongo da zabalik.

Farmaziak

GAUR

- **Tolosa.** Egunekoa: Tolosa, M. I. Kale Nagusia, 7. Telefonoa: 943 67 06 48. Gauekoa: Azpiroz, L. Amartoz auzoa, 9. Telefonoa: 943 67 51 18.

- **Betelu.** Carrillo, A. Kale Nagusia, 5. 112.
- **Irurtzun.** Mutiloa, A. M. San Martin, 5. 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanenen eta iritzien erantzukizunik.

Agurrak



Zorionak!

Eider Urkizar Landa. Gaur 3 urte. Zorionak eta muxu goxoak familiaren partetik.

AGURRAK
943-65 56 95
tolosaldean@hitza.info

●● **agurrak**



Bidali zure argazkia
thargazkiak@hitza.info
helbidera!

Parte hartzaileen eta bozka ematen dutenen artean, HITZAKo materiala zozkatuko dugu.

XVI. HITZA Udako argazki lehiaketa

Sari mundialak!

1.Saria: Elantxobeko Ogoño Mendi landetxean, bi pertsonentzako bi gaueko egonaldia. Bermokiz,6 -48310 (ELANTXOBE) Tel.: 657 716 648

2.Saria: Photokaferen eskutik, argazki-album analogikoa. www.ardanaizestudioa.com

3.Saria: Orue erretegia, bi pertsonentzako otordua. Samaniego kalea, 3-Tel.: 943 65 19 11 - 204-00 (TOLOSA)